

Zumaiako
Udala



ZUMAIA
BIZITZEKO
DA

Zumaiako Ludoteka

2023/2024

Zumaiako Ludoteka
943143264
ludoteka@zumaia.eus



Euskara & Hezkuntza



ZER DA LUDOTEKA?

6-12 urte bitarteko haurrentzako zerbitzua da. Ez da eskola, baina jostailu eta jolasaren bidez haurraren nortasuna garatzea helburu duen zerbitzua da eta umeez zuzeneko arreta jasotzen duten lekua.

ZER ESKAINTZEN DUGU?

HAURRENTZAT :

- Astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 19:30era
- Ekintza gidatuak egunero
- Ekintza bereziak (festak, irteerak...)



- LudoKeta 10-12 urte bitarteko haurrentzako programa da.
- Hilabetean bi ostiraletan LudoKeta 19:30-20:30 bitartean irekita egongo da.
- Beraientzat egokitutako ekintzak izango ditugu.

FAMILIENTZAT:

- Informazio zerbitzua
- Jostailuen mailegua
- Familientzako ekintzak
- Jostailu erakusketa

NOIZ IREKIKO DA LUDOTEKA?

- Ludoteka urriaren 2an irekiko da.
- Urriaren 2tik 6ra ate irekiak izango dira eta adina duen edonork parte hartu ahal izango du bertan.
- LudoKeta urriaren 20an hasiko da.

IZEN EMATEA

- Ordutegia:
 - Haur bakoitzak **bi egun aukeratuko** ditu.
- Ikasturteko kuotak:
 - Ludoteka: 50,25 €
 - Ludoketa (10-12 urte): 12,70 €
 - **DBE-GLL onuradunak:** ordainketa salbuetsita
 - **Familia ugarien kasuan:** diru sarreraren arabera hobaria

Familia ugarien kasuan hobaria jasotzeko eskaera eginda eduki behar da Udalean.

Hobaria eskatuta baduzue, dagokizuen %aren arabera diru sarrera egin							
	%10	%15	%20	%30	%40	%50	%90
Ludoteka	45,22	42,72	40,20	35,17	30,15	25,12	5,03
LudoKeta	11,43	10,8	10,16	8,89	7,62	6,35	1,43

Ez baduzue eskatu hauek dira baremoak					
Seme-alaba kop	0-20.000,00€	20.000,01-40.000,00€	40.000,01-60.000,00 €	60.000,01-80.000,00 €	>80.000,01€
3	% 90	% 30	% 20	% 10	% 0
4	% 90	% 40	% 30	% 15	% 0
5 edo gehiago	% 90	% 50	% 40	% 20	% 0

(Ludotekako kuota ordaintzen duten LH4-6 bitarteko haurrek ez dute LudoKetako ordaindu behar)

KONTU KORRONTEA: KUTXA ES30 2095 5174 91 1061601620

- Ekarri beharrekoak:
 - Argazki bat (berriak direnek)
 - Izena emateko orria beteta
 - Ordainagiria
 - DBE-GLL agiria, beharrezkoa bada

Izen-ematea ez da behin betikoa izango beharrezko guztia ekarri arte.

NOIZ?

Izen ematea irailaren 25etik urriaren 3ra izango da, biak barne.

NON?

Hiru aukera dituzue:

1. Dena e-mailez bidali daiteke, dokumentuak zumaia.eus webgunean egongo dira zintzilikatuta. Dokumentuak pdf formatuan bidali behar dira, ez dira argazkiak onartuko. ludoteka@zumaia.eus
2. Ludotekako buzoian, paper guztiak sobrean sartuta
3. Ludotekan bertan aurrez aurre honako egunetan:

9/25	9/26	9/27	9/28	9/29
11:30-14:00	11:30-14:00	11:30-14:00	11:30-14:00	11:30-14:00
10/2	10/3			
16:00-19:30	16:00-19:30			

Norbaitek hiru aukera hauetan ezin baldin badu, hezitzaileekin adostuko da beste modu bat. Horretarako, beraiekin jarri harremanetan.

ZOZKETA

- Egun aukeraketa nahiaren arabera egin behar da, zenbakiak jarritz (zein egun nahiko zenituzke tokatzea? Egun horiei "1" , "2" eta "3" jarri lehentasunaren arabera)
- Haur bakoitzari zenbaki bat emango zaio eta egun aukeraketa nondik hasiko den zozkatuko da (adib: 15 zenbakia ateratzen bada, 15.enetik hasiko gara egunak osatzen, egun guztiak bete arte) Posible den heinean, zuek aukeratutako egunak errespetatuko dira..
- Zerrenda urriaren 7an argitaratuko da, ludotekan eta zumaia.eus webgunean.
- Egun bakoitzeko itxaron zerrenda osatuko da.
- Inolako aukerarik gabe geratuz gero, dirua itzuliko zaizue.
- Ezinbestekoa izango da izena ematea ludotekan parte hartzeko.